

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 196/2016 Foru Agindua, abuztuaren 1ekoa, zeinaren bidez Bernedoko udalerriko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoaren aldeko txostena egin baita, baldintza batzuekin

Bernedoko (Araba) arau subsidiarioen 7. aldaketa puntuala izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua jarraitu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura honen esparruan Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan Bernedoko Udalaren idazki bat sartu da, Bernedoko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntuala izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura izapidetzen hasteko. Aldaketa puntuala honi buruzkoa da: "Lurzoru urbanizaezineko abeltzaintza jardueri lotutako erabilerak eta eraikuntzak, lehentasunezko zonak eta zona eraikigarriak kenduz, eta babes bereziren baten pean ez dauden lurzoru urbanizaezinearen kategorietan instalazioak baimenduz, biztanlegune, ermita, atsedenleku, eta abarretarako segurtasun tarteak ezarriz". Idazkiarekin batera, ingurumen agiri estrategikoa ere aurkeztu zen, bai eta Bernedoko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren zirriborroa ere. Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, aipatutako agiriak jaso ondoren, hasiera eman zion eragindako herri administrazioak eta interesa duten pertsonak kontsultatzeko urratsari, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteek zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA-Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jauriaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jauriaritzaren Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza	X
Eusko Jauriaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Naturaren Arabako Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Bernedoko Udala	
Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 16/10 espedientean dago):

URA – Uraren Agentziak bi txosten egin ditu. Apirilaren 18an bidalitako txostenean, adierazi zuen URAk URA-Uraren Agentziaren beraren txosten bat bidaliko duela, bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren dagokion txosten sektoriala ere. Maiatzaren 25ean emandako txostenean hau ondorioztatu du URAk: “Bernedoko HAPOn 7. aldaketa puntualak eragin esanguratsua duela URA-Uraren Euskal Agentzia honen eskumen edo kudeaketa eremuko arloetan”.

Bestalde, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ekainaren 24ko data duen txosten bat eman du, hau ondorioztatuz: “erakunde honen eskumenei dagokienez, ingurumenaren ikuspuntutik, uste dugu, aurkeztutako agiriak aztertuta, “Bernedoko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren helburu nagusia abeltzaintzako ustiategiak baimendu ahalko diren lurzorua zabaltzea da eta, hasiera batean, bateragarritzat jotzen da, sistema hidrikoari dagokionez, Bernedo udalerrian ingurune hidrikoari eragin dakizkiokeen ondorioak minimizatzeko behar diren neurri prebentibo eta zuzentzaile guztiak gauzatzen badira, eremuko dinamika hidrológicoak aldaketa esanguratsurik izango ez duela bermatuz eta erasandako eremuetako ingurune hidrikoa uneoro babestuz, bai azalean bai lurpean, hura kutsatzea edo andeatzea saihestuz. Adierazitakoaz gain, kasuan kasu, Bernedoko arau subsidiarioen aldaketan proposatutako jarduketan proiektu zehaztuta jasotzen direnean, konturik handienaz jardun beharko da, bai obren fasean bai ustiatzekoan, uren kalitatea ez eraldatzeko”.

Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren arabera, “eraikitako kultura ondareari dagokionez, nabarmendu behar da aipatu agiriak berariaz galarazten duela abeltzaintza erabilera arkitektura eta arkeologia ondarea babesteko eremuetan eta, beraz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzu honentzat ez dago eragozpenik aldaketaren espedientea izapidetzen jarraitzeko”.

IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak dioenez, besteak beste, “agiriaren edukia eta atxikitako planoak aztertu ondoren, ezin izan da egiaztatu bertan ondo kontuan hartu dela historikoko kutsagarriak izan zitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzatiak daudela eta, beraz, arriskua ekar diezaiuketela etorkizuneko erabiltzaileei eta/edo ingurumenari”. Halaber, adierazi duenez, lurzati horiek irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan (lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko Dekretua) nahiz hura eguneratzeko zirriborroan sartuta daude, eta horretarako Geoeuskadi bisorerako esteka bat eta posta elektronikoko helbide bat ematen dira, udal teknikariek GIS bisore batean bistaratu ahal izateko informazioa eskatu nahi balitz. Aldaketa puntualaren eremuan ukitutako lurzatiarik balego, eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 4/2015 Legearen 23. artikulua kontuan hartuz, “lurzoruaren kalitatea ikertu beharko da, aipatu 4/2015 Legearen xedatzen denez. Ikerketa hori amaitzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak ebatzen bat egingo du lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena eginez”. Azkenik, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera ziurtatutako erakundeek egin behar dituztela gogorarazten da.

Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak, aldaketa puntualaren laburpena eta ingurumenaren gaineko erasanaren analisia egin ondoren, hau ondorioztatu du: “Zuzendaritza honek udalerrian indarreko arauak abeltzaintza erabilerari ezartzen dioten muga orokorrak kendu beharra ulertzen badu ere, ez dirudi egokiena udalerriko osoa (Natura 2000 espazioak izan ezik) hartzen duen “Balizko abeltzaintza erabilerako areak” baldintzatzaile gainjarri berri bat definituz konpontzeak; izan ere: Abeltzaintza erabilera erabilera hori baimenduta dagoen antolamendu kategorietan baino ezingo da gauzatu (kategoria hauek: 2. Zona. Ezohiko balio zientifikoa edo naturala duen zona, 5. Zona. Basogintza eta bazkalekuak babesteko zona, 7. Zona. Erabilera mugatuko nekazaritza babesteko zona, 8. Zona. Nekazaritza babesteko zona); horrek, berez, kontraesana dakar udalerriko osoa hartzen duen baldintzatzaile

bat definitzearekin. Txosten osoan islatzen denez, udalerriko zona batzuetan, abeltzaintza erabilerarako egokiak izan ez arren (bertako basoen zonak, mehatxupeko flora duten zonak, etab.), erabilera hori bultzatzen ariko litzateke.

Natura Inguruneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren ustez, egun abeltzaintza erabilerak dituen mugak kendu nahi badira, nahikoa litzateke "C3. Abeltzaintzarako egokiak diren zonak" baldintzatzaile gainjarria kentzea. Balizko abeltzaintza erabilera duten zonak identifikatu nahi badira, analisi bat egin behar litzateke erabilera hori hartzeko baldintza egokiak benetan biltzen dituzten zonak identifikatzeko. Edozein kasutan, araudiak argi utzi behar du Zuzendaritza horrek bere txostenean euren balio naturalistiko handiagatik eta abeltzaintza erabilerarako egoki gisa nabarmendu dituen zonetan erabilera hori ez legokeela onartuta."

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi duenez, agiriak aztertuta, ez da hauteman kultura ondarearen gaineko zuzeneko erasanik. "Eraikuntza ekintzarik edo eraldaketak eragindako lur mugimenduak dakartzan lanik balego, ordea, kontuan hartu behar lirateke kultura ondarearen baldintzatzaileak (zona arkeologikoak, kultura intereseko elementuen inguruneak...)"

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzaren Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak dioenez, aldaketa puntualak "abeltzaintza udalerrian ezartzea edo hedatzea erraztuko du nolabait; nekazaritza eta abeltzaintzaren iraupena eta ezarpena eta haien produktuak eraldatu eta saltzeko balizko jarduerak hobetzen ditu horrek eta, halaber, biztanle gutxi eta batez beste adinekoak dituen zona horretara biztanleak itzultzea ekar dezake". Azkenik, dioenez, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabiltzea, mantentzea eta zaintzea arautzen dituen 6/1995 Foru Araua bete behar da eta interesdunen zerrendan udalerrian diharduten ureztatzaile-elkar-teak sartu behar dira.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintzaren Zuzendaritzak eskatuta, ingurumen txosten estrategikoa eman du uztailaren 27an.

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertu diren kokaleku posibleak.

1,1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena.

Aldaketa puntual honen bidez, udalbatzak erantzuna eman nahi die abeltzaintzaren sektoreak egiten dituen lurzoru eskaerei, ekoizpen sektore horren ezarpena ez oztopatzeko. Horretarako egungo arauak ezarri dituzten murrizketak kendu nahi ditu, ustiapen horiek sailhes-tea gomendagarri egiten duen natura eta/edo ingurumen baliorik ez duten lurzoru guztietan abeltzaintzako ustiategiak baimendu ahal izateko. Ildo horretatik, sustatzaileak emandako Ingurumenari buruzko agiri estrategikoan bertan adierazi denez, aldaketa honi dagokion eremua Bernedo udalerriko lurzoru urbanizaezinetik, Natura 2000 Sareko inongo natura espaziotan sartuta ez dagoen eta, era berean, abeltzaintza eta abeltzaintzarako azpiegiturak eraikitzea ahalbidetzen dituen lurzoru urbanizaezinaren kategoria bat duenera mugatzen da. Bestalde, eremu horren barruan sektorearen legediak onartzen ez duen lurzoruetan abeltzaintzako ustiategiarako dauden galarazpenak jaso dira.

Bestalde, aldaketa puntual horrekin funtsezko aldaketa bi ere ezarri dira:

Neurri batean indarrean dagoen legezko araudia betez, arau subsidiarioetan abeltzaintza instalazio horientzat dauden baldintzak eguneratzea (besteak beste, eraikuntza jarduerak eragindako ingurumen-inpaktua zuzentzeko neurriak eskatzeari buruzko 139. artikuluko 1.j letra ezabatzea).

"C4. Korridore ekologikoak" eta "C5. Paisaia bikaina" baldintzatzaile gainjarriak sartzea.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa.

Bernedo udalerria Izkiko haran garaia bihotzean dago kokatuta, Arabako ekialdean, iparrean Gasteizko mendiekin, hegoan Kantabriako mendilerroarekin, ekian Arraia-Maezturrekin eta mendebaldean Trebiñuko konderriarekin muga eginda.

Eremu zabala da, erliebe oso leuna eta hareazko zoruak dituena (egokiak Izkiko parke natural-eko ameztientzat), nagusiki kareharrizkoak diren mendiek inguratuta. Izki ibaiak zeharkatzen du udalerria mendebaldetik ekialdera. Ibai horretara isurtzen dira erreka asko, eta haren urak Ega ibaira doaz, udalerraren hegoaldean. Udalerraren mendebaldean iparretik datorren Ihuda ibaia daukagu, zeinak Kapildui mendiaren inguruetatik datozen Molino ibaiaren urak biltzen baititu.

Azalera 130,4 km²-koa da, haren altuera San Tirso haitzaren 1.333 metroetatik Ega ibaiaren ibilguak dituenetara doa, gehienez 600 metrokoak.

1.3. Aztertu diren kokaleku posibleak.

Ingurumen txosten estrategikoan adierazitakoaren arabera, honako aukerak aztertu dira:

0 aukera: Egungo hirigintza egoerari eustean datza. Euren ustiatagia handitu nahi duten abeltzainek edo jarduera horretan hasi nahi duten pertsonak lurra erosi behar litzateke, eta haien eskaintza mugatua da. Indarrean dauden arau subsidiarioek "Lehentasuneko zonak edo Abeltzaintzako ustiatagiak kokatzeko zona egokiak" deritzen baldintzatzaile gainjarri baten bidez mugatutako area jakin batzuetara mugatzen dute abeltzaintza erabilerak ezartzeko aukera. Haietan, bestalde, kontuan hartu behar da lurzoru urbanizaezinaren kategoria eta, beraz, abeltzaintzako ustiatagiak baldintzatzaile gainjarriaren orbana erabilera horretarako egokia den lurzoru urbanizaezinaren kategoria batekin bat badator baimenduko dira.

1 aukera: Haren arabera, C3. Lehentasuneko zonak eta Abeltzaintzako ustiatagiak kokatzeko zona egokiak baldintzatzaile gainjarriaren eremua aldatu behar litzateke. "Balizko abeltzaintza erabilerako areak" izena hartuko luke eta Bernedoko lurzoru urbanizaezin guztia hartuko luke, Garrantzi Komunitarioko Tokiak (egun Kontserbazio Bereziko Zona izendatuak) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Zonak izan ezik. Hala, abeltzaintzako ustiatagiak onartuko litzatekeen lurzoru nabarmen handituko litzateke baina, abeltzaintza eta hari lotutako azpiegiturak Bernedoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean baimendu ahal izateko, ustiatagiaren kokalekuak bat etorri behar luke aldi berean horretarako egokia den (erabilera hori ahalbidetzen duena) lurzoru urbanizaezinaren kategoria batekin eta "Balizko abeltzaintza erabilerako areak" baldintzatzaile gainjarriarekin.

Arau subsidiarioetan irailaren 16ko 177/2014 Dekretuak onartutako nekazaritza eta basogintza LAPan aurreikusitako beste baldintzatzaile gainjarri bi ere sartzen dira. Haietako bat "Korridore ekologikoa"ri dagokio, eta "Gasteizko mendi garaiak-Entzia"; "Izki- Gasteizko mendi garaiak"; eta "Toloño-Kantabria-Izkiko mendilerroa) lotzen ditu (nekazaritza eta basogintza LAParen araudiaren 75. artikulua). Proposatzen den bigarren baldintzatzaile gainjarria "Paisaia bikaina" da, eta Arabako Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren Aurreproiektuak Bernedo udalerrian sartzen dituenak jasotzen ditu (nekazaritza eta basogintza LAParen araudiaren 60. artikulua).

Halaber, arau subsidiarioek 138. artikuluan ("eraikuntza erabilera eta jarduerari esleitutako hirigintza parametroak") eta 139. artikuluan ("Eraikuntza erabilera eta jarduerari eskatu behar zaizkien beste baldintza batzuk") ezartzen dituzten zehaztapenak berrikusi dira, eta zehaztapen horiek indarreko araudiaren arabera eguneratu dira.

Irizpide orokorra da, legezko araudi horrek epe labur edo ertainean aldaketak izan ditzakeen kasuetan, 7. aldaketa puntualaren hirigintza agirian zehaztapen zehatzaren ordean indarreko legeriara bidaltzea nahiago izan dela.

2. Ebaluazio prozesuaren analisia. Ingurumen-inpaktu nagusiak.

Bernedoko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren sustatzaileak emandako agiriak aztertuta, uste dugu, oro har, agiriak behar beste kalitatea daukala txosten honetan aztertu den ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua gauzatzeko. Hala ere, aldatu behar diren zenbait kontu hauteman dira eta txosten honen 5. zenbakian aztertuko dira.

Bernedoko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualean jasotako jarduketaren ondoriozko ingurumen-inpaktu nagusiak inpaktu paisajistikoari daude lotuta. Bernedo udalerriak Arabako

Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiak onartu zuen katalogoa) katalogatutako paisaia bikain asko dauzka.

“Gasteizko mendiak” paisaia bikaina (21. kod.). Ingurumen agiri estrategikoan aipatu arren, Bernedo udalerraren zati txiki bat baino ez dator bat espazio horrekin, ipar muturrean.

“Ihuda, Aiago eta Ega ibaien buruak” paisaia bikaina (62. kodea)

“Ihuda ibaia” paisaia bikaina (41. kodea)

“Izkiko mendiak” paisaia bikaina (19. kodea).

“Kantabriako mendilerroa” paisaia bikaina (43. kodea)

“Mendiluzea-Jaundel-Luzaran” paisaia bikaina (5. kodea)

Udalerrri osoak, bere orografia dela-eta, behatzaileak metatzen diren gunek askotatik oso agerikoak eta bistakoak diren zonak dauzka eta, beraz, udal lurraldetik sakabanatutako abeltzaintza eraikinak eta azpiegiturak ugaltzearen ondorioz paisaiaren kalitatea nabarmen urritu liteke paisaian txertatzeko neurri egokirik ezarriko ez balitz.

Bestalde, abeltzaintzako nabeak nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeko eremuetan baino instalatu behar ez liratekeela uste da, bertako zuhaixka edo zuhaitz landaretzak estalitako baso esparruak okupatzea saihestuz eta, horregatik, uste da “Balizko abeltzaintza erabilerako areak” baldintzatzaile gainjarritik kentzeko proposatutako aldaketa birpentsatu behar litzatekeela, eremu horietan guztietan eragingo litzatekeen ingurumen-inpaktuagatik, hori dena txosten honen 5. zenbakian zehaztu denez.

Azkenik, abereek, estabulazio aldietan batez ere, sortutako simaur eta mindei dagokienez, ingurumena kutsatzeko arazo nabarmenak sor litzatekeen kontua izanik, beharrezkoa da aplikatu behar den sektoreko araudia, bereziki irailaren 22ko 515/2009 Dekretua, abeltzaintzako ustiatze-gietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak, zorrozki betetzen dela bermatzea.

3. Planak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen balorazioa.

Ingurumen agiri estrategikoaren 6.V zenbakian adierazi denez, Bernedo uldaerrian dauden Natura 2000 Sareko espazioak hemen zerrendatu direnak dira:

Ega-Berron Ibaia Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), ES2110020 kodea, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bidez (eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko Dekretua) izendatua.

Ihuda ibaia KBE,, ES211001 kodea, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bidez (eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko Dekretua) izendatua.

Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE eta Hegaztientzako Babes Handiko Eremua (HBBE), ES2110018 kodea, urtarrilaren 26ko 10/2016 Dekretuaren bidez (Arabako hegoaldeko Mendilerroak Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izendatzen duena eta hari dagozkion kontserbazio neurriak onartzen dituen Dekretua) izendatua.

Izki KBE eta HBBE, ES2110019 kodea, martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuaren bidez Izki Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izendatzen duena eta hari dagozkion kontserbazio neurriak onartzen dituen Dekretua) izendatua.

Ingurumen agiri estrategikoan bertan, hauxe esaten da hitzez hitz: “Espazio horien balio naturala dela-eta eta haietan batere erasanik ez sortzeko helburuz ez dira sartu aldaketaren eremuaren barruan eta, beraz, a priori aldaketak ez die ez zuzenean ez zeharka eragingo”.

Ingurumen erakunde honen ustez, Natura 2000 Sareko espazioak 7. aldaketa puntualaren eremutik kanpo uztea neurri egokia da irailaren 1eko 33/2015 Legeak (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko irailaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duen Legea) 46.2 artikuluan ezartzen duen prebentzio araubidea bermatzeari begira.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Bernedoko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntuala, udalerrian abeltzaintzako jarduerak ezartzeari buruzkoa, izapidetzeak, uste denez, ez du ingurumen eragin esanguratsurik ekarriko ingurumen ebaluazio sinplifikatuko prozedura honen esparruan sustatzaileak eman dituen agirietan (ingurumen agiri estrategikoa eta aldaketa puntualaren zirriborroa) azaldu diren jarduketak betetzen baditu eta zenbaki honetan jasotako zehaztapenak betetzen badira:

a) C3 “Balizko abeltzaintza erabilerako areak” baldintzatzaile gainjarria berriz mugatu behar da, udalerriko bertako basoak, garrantzi komunitarioko eta lehentasuneko zuhaixka eta zuhaitz habitatak (92/43/EEE Zuzentarauak definitu dituenak), eta katalogatutako hezeguneak kanpoan utziz. Espazio horiek abeltzaintzako eraikuntzak baimentzen diren “abeltzaintza” eremutik kanpo utzi beharko dira, Natura 2000 Sarearen barruan zein kanpoan egon. Hala, LAAetan, Euskal Herriko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginean, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legean (zeina irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatu baitzuen) eta 92/43/EEE Zuzentarauan ingurumen kalitate eta sentiberatasuneko eremuen babesa eta, bereziki, bertako landaretzako zuhaitz masen kontserbazioa kontuan hartu beharrari buruz xedatutakoa beteko litzateke. Eremu horiek definitzeari begira, Bernedoko Udalak, ingurumen kartografia eguneratua ez baleuka, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari eska diezaioke informazio hori.

b) Egokitzen da 7. aldaketa puntual honetan “korridore ekologikoak” eta “paisaia bikainak” baldintzatzaile gainjarriak jaso izana; izan ere, konektibitate ekologikoko prozesuak babestea bermatu behar da eta udalerriko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan bistako arroen eszena kalitateagatik katalogatutako eremuak (Gasteizko mendiak, Ihuda, Aiago eta Ega ibaien buruak, Izkiko mendiak, Kantabriako mendilerroa eta Mendiluzea-Jaundel-Luzaran paisaia bikainak) bistako arroen eszena kalitateagatik katalogatutako eremuak babesten lagundu behar da. Egokia da, ordea, zuzenketa hauek egitea:

“Korridore ekologikoak” baldintzatzaile gainjarriak Arabako Foru Aldundiaren Korridore Ekologikoen Sarea (Arabako Lurralde Historikoko Konektibitate Ekologiko eta Paisajistikorako Estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005.). Eremu horiek definitzeari begira, Bernedoko Udalak, ingurumen kartografia eguneratua ez baleuka, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari eska diezaioke informazio hori.

“Paisaia bikainak” baldintzatzaile gainjarrian baldintza hau sartu behar da: eremu horietan Bernedoko Udalak abeltzaintzako azpiegiturak edo lotutako edozein eraikin eraikitzea baimendu aurretik, paisaiaren arloan eskumena duen ingurumen organoak eragin pasajistikoa buruzko txosten bat egin behar du, paisaian era egokian txertatzea bermatzeko baldintza egokiak ezarriz.

c) Arau subsidiarioetan abeltzaintza instalazio horientzat ezarritako baldintza batzuk eguneratu eta kentzeari buruz, ingurumen organo honen aburuz 139. artikuluko 1.j letra utzi behar litzateke, honela idatzita: “Orobat, ingurumen-inpaktu esanguratsua sortzen duten espediente guztietan, sortzen diren eragin kaltegarriak albait gehien gutxitzea eta lehengoratzea bermatzen duten neurri prebentibo eta zuzentzaileen proiektua aurkeztu beharko da”.

Horrengatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bernedo udalerriko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualari buruzko ingurumen txosten estrategikoa aldekoa da.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeari, ingurumen ebaluazioarenari, jarraituz, ingurumen agiri estrategikoaren helburua izango da ingurumen erabakia ematea, jarduketa gauzatzeko neurriei eta baldintzei dagokienez erabakigarria izango dena.

Hirugarrena. Ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitaratuko da.

Gasteiz, 2016ko abuztuaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN